

• ASTERO GAIA •

Sefardiak Istanbulen

500 urte gaztelania zaharra zaintzen

Bostehun urte baino gehiago igaro dira errege katolikoek judu sefardiak Iberiar Penintsulatik kanporatu zituztenetik eta Inperio Otomandarren porturatu zirenetik. Turkoen tolerantziari esker, judu sefardien komunitatea bizirik dago egun Mediterraneoaren bestaldean, Istanbulen. Hala ere, bere antzinako hizkuntza galtzen ari da pixkanaka: judu-espainola edo gaztelania zaharra.

MARC MORTE

Argazkiak: Elena Senao



Karakoy-ko (Turkia) Museo Judua.



Karen Gersonik *Salom* egunkari juduan egiten du lan.

İSTANBUL BETI İZAN DA ARRAZA, hizkuntza eta erlijioen topagune. Inperio Otomandarren garaia atzean geratu da –orduan herrialde kultur antzak ondoz ondo bizi ziren–, baina oraindik badira zenbait komunitate txiki, judu sefardiarena esaterako, bakean bizitzea posible dela erakusten dutenak. Sefardien ibilbidea duela bost mende baino gehiago hasi zen Inperio Otomandarren. Ezer gabe iritsi ziren, bihotza urraturik, beren etxetik, Iberiar Penintsulatik, kanporatuak izan ostean. Sefardiak denbora gutxiren buruan gizarteratu ziren, Inperioaren hiriburuko bizimoduan bertako sentitu arte, antzina Espainian bezala.

Bost mende igaro dira eta komunitatea asko murriztu da, XX. mendeko emigrazioengatik neurri handi batean, baina hala ere, Iberiar Penintsulan izan zuten bizimoduaren ondarearen zati handi bati eusten diote. Bostehun Urte Fundazioaren presidenteorde eta Turkiako Museo Juduaren zaintzaile Naim Güleriyüzek ondo baino hobeto ezagutzen du sefardien historia. Museoa Zulfaris Sinagogan dago, Galata auzo historikoaren kalezulo txiki eta ezezagun batean ezkutaturik. Sinagogaren horma gorritak segurtasun zaindarek eta kamerek babestutako ate handi baten atzean daude. Herritar sefardiek emigratu ahala, gero eta gutxiago erabiltzen zen sinagoga, hiriko beste hainbat bezala, baina ahanzturatik atera eta museoa sortzeko

berreskuratu zuten. Barnealdea ez da oso handia, baina egokia da judu sefardiek Espainiatik ihes egin zutenetik gaur arteko historia objektu, argazki eta testuen bitartez azaltzeko.

Erakusketa bisitatu ostean, bulego txiki batera eramán gaituzte. Güleriyüz zain daukagu bertan; adineko gizona da, itxura agurgarrikoa. Adeitsu hartu gaitu oso. Ingelesez hitz egiten hasi gara, baina azkar egin du judu-gaztelaniara; lehen hitzak entzun bezain laster, azentu arkaiakoak eta soilik XV. mendeko erromantzeetan irakurri daitezkeen hitzek inguratu gaituzte, eta antzinako liburu baten usainak blaitu. Presidenteorde kargua du fundazioan, eta hartaz galdetu diogu: “Fundazioa 1992an sortu zen, lurrera iritsi gineneko bostehungarren urteurrena ospatzeko. Helburua ez zen kanporatu izana ospatzeko, herri turkoa omendu nahi genuen, besoak zabal-zabal hartu gintuelako ezer ez geneukanean, eta bost mendez tolerantziaren eta errespetuaren eredu izan delako”. 1492an juduak Espainiatik kanporatu zituztenean, Beyazit II.a sultanak agindu eman zuen juduei merezi zuten eran ongietorria egiteko, eta hitzok esan zituela ere uste da: “Fernando errege katolikoa jakintsua da askorentzat, baina goratzen duten horiek oker daude, juduak kanporatuz Espainia pobretu eta Otomandarren Inperioa aberastu baitu”. Istanbul, Salonika, Izmir eta beste zenbait hiri sefardien gune garrantzitsu bihurtu ziren, Salonika batez ere. Bigarren Mundu Gerran neutrala izan zen eta leku seguru bihurtu zen juduentzat. Haiei esker bizirik iraun zuen Istanbulko sefardien komunitateak, ez, ordea, Salonikakoak, naziek deuseztatu baitzuten.

Tolerantziaren historia luzea izan arren, azken mende honetan murriztu egin da biztanleria, emigrazioengatik. “Diasporaren sorreran hainbat etapa izan ziren”, azaldu du Güleriyüzek. “Lehenengo jende oldea 1910 eta 1915 artean izan zen, inperioa krisian zegoenean. Askok eta asko Estatu Batuetara edo Kubara joan ziren, aukera berrien bila. Bigarren emigrazio aldia 1947 eta 1949 artean izan zen, Israel sortu ostean. Herritar batzuek aberri judua sortzeko ideala zuten buruan, baina gehienek dirua zuten helburu



nagusi. Pobreak ziren eta aukera berriak nahi zituzten; etxea, lurrak, lana, eta abar. Azken oldea 70eko hamarkadan izan zen, Turkiak arazo politiko eta ekonomiko asko zituenean. Zenbait familia dirudunek herrialde egonkorra goetara egin zuten alde. Egoera egonkortu denean, batez ere familia dirudun horiek itzuli dira Turkiara”. Baina hitz eta zenbaki horiek islatzen duten dramatismoa gorabehera, sefardien komunitatearen etorkizunak ez du Gülyüz kezkatzen: “Bai, egia da XX. mendean komunitatea murriztu egin dela, baina beste alde batetik, kalitatea hobea da. Gure herrialdean geratu diren gehienak gizalegezkoak dira, ongi heziak, profesional gaituak, eta lanpostu garrantzitsuetan egiten duten lan. Gainera, biztanleria egonkortu egin da azken urteetan, 20.000 lagun inguru bizi gara Istanbulen, eta beste 2.000 Turkiako gainerako lurraldean”.

Judu-gaztelania, iraganeko altxorra

Sefardien komunitateko altxor preziatuenetakoa izan da XX. mendera arte sefardien hizkuntza izan dena: judu-gaztelania edo gaztelania zaharra. Karen Gerson aditua da arlo horretan, eta ondare hori babestez gain, *Salom* egunkari juduan egiten du lan. Sisli erdi mailako auzoan dago egunkariaren egoitza, eraikin baten azken solairuetan. Atarian sartu eta berehala, nortasun agiria eskatu digu segurtasun zaindari batek eta aurrera egin dezagun baime-na eskatu du walkie-talkie. Kontrol zorrotza igarota, gelan sartu eta bulego batera eramán gaituzte. Hantxe hartu gaitu Gersonen, irribarretsu, gertutasuna erakutsi nahian. Gülyüz bezala, Gersonen ere bikain hitz egiten du judu-gaztelaniaz, eta bere hitzek espainiar literatura eskolak gogorarazi dizkigute, *La Celestina* eta beste hainbat literatura-lan irakurtzen genituenekoak. Lan egiten duen egunkariak galdetu diogu lehenengo: “*Salom* astekaria da, eta 4.000 ale argitaratzen dira. Urte askoan judu-gaztelaniaz argitaratu zen arren, garaia aldatu dira eta egun turkieraz argitaratzen da oso-osorik, judu-gaztelaniaz idazten den orrialde bat izan ezik. Horrez gain, *El Amaneser* ere argitaratzen dugu, gehigarri hilabetekari bat, judu-gaztelaniaz oso-

Goiko irudian,
Galata zahar
etxeke sinagoga.
Eskuinean, Isak
Haleba errabinoa.



osorik. XX. mendean emigratu zuten mundu osoko sefardiek kolaboratzen dute lan horretan. Arrakasta handia du argitalpenak, hala egileen kalitateagatik nola eskatzen dutenengatik, ez Turkian bakarrik, baita Israelen, Estatu Batuetan eta Espainian ere”.

Gaztelania zaharrak sefardien komunitatean eguneroko bizimoduan izandako itzalaren erakusgarri garbia da *Shalom* astekaritik judu-gaztelania desagertu izana. Hainbat mendez, juduen nortasun adierazle zen gaztelania, Inperio Otomandarrean, eta gaztelaniaz hitz egiten zuten guztiak judu jotzen ziren. Egoera XIX. mendean hasi zen aldatzen, 1860an Israeldarren Batasunaren (Alliance Israeli) lehen eskola sortu zenean. Ekialdeko komunitate judu atzeratuen heziketa frantses hizkuntzaren bitartez hobetzea zen eskola horren helburua. Frantsesa azkar barnerratu zen sefardien komunitatean, eta zenbait familia egunerokoan erabiltzen hasi ziren. Hala ere, lorpenetako bat *rashi* alfabetoaren ordez alfabeto latindarra sartzea izan zen, judu-gaztelaniaren alfabeto gisa erabiltzeko egokitutako hebreerazko hitz multzoa. Alfabeto latindarra juduak Iberiar Penintsulan sartu zirenetik erabiltzen zen, baina judu-gaztelaniari 1923an Turkiako Errepublikan sortzean eman zitzaion behin betiko kolpea, europar erako irakaskuntza sistema ezarri zenean, turkoa estatu hizkuntza ofizial izendatu baitzuten. Horrenbestez, turkoa derrigorrezko

Sefardiak Istanbulen

hizkuntza zen eskola eta unibertsitateetan. Orduz gero, belaunaldi berriek ama-hizkuntza gisa hartu dute turkoa, eta judu-gaztelaniari adinekoek eta adituek baino ez diote eutsi.

Gersoni judu-gaztelaniaz galdetuta, harritu egin gaitu haren jarrera baikorrak: “Ahalegin handia egiten ari gara gure hizkuntza salbatzeko, liburuak eta hiztegiak argitaratzen ari dira judu-gaztelaniaz, eta Israelgo bi unibertsitateetan judu-gaztelania sailak daude. Gai honetan lanean aritzen garenok harremanetan gaude gure hizkuntza berrindartzeko. Gainera, zenbait arau ortografiko ezartzeko adostasuna lortu dugu, gaztelania zaharrak ez baitu halakorik inoiz izan, ahozko tradizioetik bizi izan da, inolako arau estandarrik gabe. Baina oraindik ez dugu lana amaitu, asko daukagu egiteko, azentuen inguruan, esaterako, oraindik ez dugu akordiorik lortu, zenbait egilek erabiltzen dituzte, eta beste batzuek ez. Lan gogorra da, belaunaldi berriek ez dute judu-gaztelaniaz hitz egiten, emigratu zutenek joan ziren herrialdeetako hizkuntzak hitz egiten dituzte, eta adineko batzuek baino ez dute eguneroko bizimoduan erabiltzen”. Zoritarrez, eta ahaleginak ahalegin, judu-gaztelania desagertzeko arriskuan dago, eta zenbait argitalpenetan museoetan gordeta iraganekeo ondare bihurtzeko zorian. “Judu-gaztelania bizirik dagoen fosila da”, esan du Gersonnek, “historiaurreko animalia balitz bezala, garatu ez dena, XV. mendeko hizkuntzaren argazki bizia da eta krimena litzateke halako altxorra galtzea. Gure kultur ondarea da, gure arbasoen hizkuntza, eta duela bost mende baino gehiago Espainiatik eraman ahal izan zuten bakarra”. Agurtu aurretik, abesti zoragarri melodiko bat entzunarazi dit Karennek, judu-gaztelaniaz. Musikak eta hitzek ezohiko malenkonia sortzen dute, arimaren barreneraino iristen den tristura askatuko balute bezala. Abestia nork sortu duen galdetuta, irribarrez erantzun du: “Los Pasharos Sefardies izeneko taldea da, eta ni neu naiz abeslaria. Zazpi disko argitaratu ditugu jada. Gure arbasoen abesti ahaztuak berreskuratzen ditugu, edo txikitant entzuten genituenak. Entzun duzunak mendebaldeko eragina du, baina ekialdeko joera bete-betea duten diskoak ere baditugu; lurralde honetako bost mendeko oinordetza da”.

Errabino nagusiarekin

Hainbat dei egin eta pasaporte hamaika aldiz egiaztatu ostean, hitzordua lortu dugu Isaak Haleva errabino nagusiarekin. XIX. mendeko harrizko eraikin prestu batean dago Errabino-tza, Pera auzo zaharraren kale estuetan ezkutatu-

ta, hainbat polizia eta segurtasun zaindarik babestuta. Sartu ahal izateko, hitzordua egiaztatu dute, pasaportea aztertu eta metal detektagailu baten azpitik igarotzera behartu gaituzte. 2003an atentatuak izan ziren, eta zenbait sinagogari lehergailuz eraso zieten. Orduetik, segurtasun neurri zorrotzak hartu dituzte juduak dauden leku guztietan, eta kamerez eta segurtasun zaindariz zaintzen dituzte.

Azken solairura igo eta zenbait minutuz zain egon ostean, errabino nagusiaren idazkaria agertu da. Elkarrizketa gauzatzeko zenbait argibide eman dizkigu, eta galarazi egin digu errabi-

no nagusiarik politikari kontuez galdetzea. Azkenik, bulegora sartzeko gonbita egin digute. Eserita dago errabino nagusia, mahai handi baten atzean, purpura koloreko abitua soinean. Judu-gaztelaniaz egin digu ongiatorria, irribarretsua. Judu-gaztelaniaren etorkizunaz zer uste duen galdetu diogu lehenengo: “Gero eta hitz-tun gutxiago daude, nire belaunaldikoek hitz egiten dute oraindik, baina hurrengoak, nire seme-ala-

benak, 40 urte inguruko herritarrek, ulertu baino ez dute egiten. Nire ilobek, berriaz, ulertu ere ez. Turkoa da orain gure hizkuntza, eta hala izango da etorkizunean ere, bizilegea da. Judu-gaztelania ez dugu asko erabiltzen, ezta sinagotetan ere. Duela 25 urtera arte, judu-gaztelaniaz egiten genituen sermoiak, baina turkierara aldatu behar izan genuen, entzuleek ez baitzuten ulertzen zer esaten genuen, eta noski, helburua haiek kongregaziotik gertu izatea eta gure hitzak ulertzea zen”.

Hizkuntza eta ohiturak galtzeko arriskuan egoteak epe luzean gizartea krisia onartzera eramango ote duen galdetuta, errabino nagusiak ezetz erantzun du zorrotz: “Belaunaldi berriak gure ohiturak berreskuratzen ari dira, gero eta gehiago joaten dira sinagogara, erlijio ezkontzak egiten dituzte eta zenbait urtean urrunduta egon ostean, mundu judua berpizten ari da. Jakina, beste ezer baino lehen,

turkoak gara gu, eta ondoren juduak, ez dago inolako zalantzarik. Eta noski, Errepublika sortu zenetik integrazioa handiagoa izan da. Baina ez da ezer asimilatu, horrek ohiturak galtzea baitakar. Eta halakorik ez da gertatu gurean”. errabino nagusiak tinko babestu arren eta ohituretara itzulita ere, ez dago argi sefardien komunitateak bizirik iraungo duen. Ez emigratioagatik eta etengabe zahartzen ari delako soilik, sefardien eta turkoen arteko ezkontzak gero eta gehiago direlako baizik, eta ondorioz, biztanleria nahasten eta berdintzen ari delako.

“Judu-gaztelania gure kultur ondarea da, gure arbasoen hizkuntza, eta duela bost mende Espainiatik eraman ahal izan zuten bakarra”

KAREN GERSON, HIZKUNTZA ADITUA

Errabino nagusiak tinko babestu arren eta ohituretara itzulita ere, ez dago argi sefardien komunitateak bizirik iraungo duen. Arrazoiak: emigrazioa, zahartzea eta sefardien eta turkoen arteko ezkontzak

Errabino nagusia da sefardien komunitateko pertsona garrantzitsuena, eta hala izan da Istanbulera iritsi zenetik, egun antzina baino botere gutxiago eduki arren: “Errabino nagusia naizenez, Turkiako juduen komunitateko burua naiz. Antzina gutxiengo talde bakoitzak bere norbanakoak kontrolatzen zituen, baina

Errepublika sortzean desagertu egin zen hori. Erljio gaiez gain, babes-etxea, erietxeak eta lehen hezkuntzako eskola bat ditugu. Eskolan, Gobernuak onartutako ikasgaiak turkieraz irakasteaz gain, hebreera eskolak ere badira astean zenbait orduz”.

Iraganeko oroitzapenak

Sefardien komunitateak Istanbulen duen egoera aztertzeke egindako ibilbidea amaitu aurretik, juduentzako babes-etxe batera joan gara. XIX. mendeko Batasunaren antzinako eskola batean dago babes-etxea, Galata auzoaren bihotzean. Geta Zakutok hartu gaitu, emakume heldu eta dotorea da, eta adeitsuki erakutsi digu egoitza: “Hemen ongi hartzen ditugu adineko guztiak, baina gehienak pobreak dira, edo familiarik ez dutenak. Guztiaz arduratzen gara: arropa, janaria, botikak... Hala ere, gurea ez da erietxea, eta ezin ditugu halako beharrak dituzten pertsonak hartu, ezta oso zaharrak ere. Horregatik, gaixo edo larri daudenean erietxetara edo halakoetarako prestaturiko zentroetara eramaten ditugu”. Babes-etxea garbia eta distiratsua da, logelak erosoak dira, eta sinagoga bat ere badute. Egoitzan bizi diren adinekoak aurkeztu dizkigu Zakutok. Gaztelaniaz hitz egiten



Galata auzoaren ikuspegia, Eminonutik ikusita.

entzun gaituztenean agurtzera etorri zaizkigu, eta txikitari entzuten zuten hizkuntzaren oroitzapenak etorri zaizkie burura. Guztiek gogoratzten dute judu-gaztelaniaren aurretik gaztelaniaz hitz egiten zutela familiako kideekin. Esther izeneko adineko emakume batek kontatu du bere familiarik bera baino ez dela gera-

tu Istanbulen: “Nire familia osoak alde egin zuen. Anai-arrebak Israelera, lagun asko Estatu Batuetara... Nik nahiago izan nuen senarrarekin geratzea, hauxe da gure hiria eta herrialdea, ez genuen bizimodua hutsetik leku arrotz batean eraiki nahi. Anaiak alde egin zuenean esan zidan kanpin-dendetan egiten zutela lo, eta bizitzeko adina baliabide ere ez zutela ia. Janaria bidaltzen genien, bizirik iraun zezaten”. Denek diote alde egin zuten lagunak eta familiako kideek gogoan dutela hiri hau, beren etxe Bosforoaren ertzean. Istanbul hiri harrigarria da. Hitz egiten amaitu dugunean, astean behin egiten duten musika tailerrera gonbidatu gaituzte. Aiton-amonen zenbait lagunak sefardien abesti zaharrak abesten dituzte, gitarrista baten soinua malenkoniatsua lagun dutela.

Aiton-amonen ahotsak ez du Gersonen Los Pasharos Sefardiés taldean duen ahotsaren gozotasunik, baina nostalgia berbera islatzen dute antzinako garai hura gogoratzean. Sefardien komunitatea sortu eta judu-gaztelania kale eta saltokietan erabiltzen zeneko garaia miresten dute. Aiton-amona horiek dira garai haren eta egungoaren arteko lotura bakarra, eta historiako atal bihurtu aurretik judu-gaztelania hizkuntza bizi gisa erabiliko duten bakarrak. ■



Aritz Ondo, 69 • 20305 Irun • Tel: 943 635518 • Faxa: 943 638718
e-posta: info@hotelatalaia.com • web orria: www.hotelatalaia.com